



## EKOGRAFIA ENDOANALA

### Zer egiten da proba honetan?

Uzkiko muskuluen irudiak lortzean datza, muskulu horietan, uzki-fistuletan, uzkiko edo inguruko abzesuetan eta beste prozesu batzuetan lesiorik dagoen egiaztatzeko.

### Nola prestatuko naiz proba egiteko?

- Erraz janzteko eta eranzteko moduko arropa ekarri.
- Ez duzu prestaketa berezirik behar.
- Ez da beharrezkoa baraurik etortzea.

### Non egingo didate proba?

Txagorritxu egoitzan, 7. D solairuan Manometriak.

Heltzen zarenean idazkaritzan eskaera eman.

### Nola egingo didate proba?

Esango dizute ohatilan etzan beharko duzula, saiheska eta ezker aldera begira, eta belauak tolestuta. Artatzen zaituzten langileek miaketa nola egingo zaizun jakinaraziko dizute:

- Lehenik, uzki-miaketa txiki bat egin ondoren, medikuak ordenagailu bati konektatutako zunda ekografiko txiki bat sartuko dizu uzkitik. Zunda horren bidez, uzki-kanala ikusiko duzu.
- Batzuetan, batez ere uzkiko fistulen miaketa egiten bada, ur oxigenatu pixka bat sartu behar izaten da fistularen zuloan, eta horrek erresumin txiki bat eragin dezake.

Probak ia ez du molestiarik eragiten, eta normalean ez da mingarria. Gehienetan, 10-15 minutu irauten du.

### Zer egin behar dut probaren ondoren?

Ez duzu ezer berezirik behar. Ohiko bizimodua egin dezakezu.

Probaren emaitzak, dagokion txostenarekin batera, proba eskatu zuen medikuari bidaliko zaizkio. Horregatik, medikuarentzako hitzordua eska ezazu Kanpo-kontsultetan, oraindik eskatu ez baduzu.

